

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Toki-erakundeetarako 125.000 euroko laguntzen deialdia egin da immigranteen gizarteratzea errazteko

Apirilaren 20a bitarte eska daitezke

Jueves, 09 de abril de 2015

Nafarroako Gobernuak epea zabandu du toki-erakundeek diru-laguntzen deialdiren bat (125.000 euro) eskuratzeko aukera izan dezaten immigranteak gizarteratzeko jarduerak egiteko, bizikidetzaz, kultur arteko errespetua eta emakume immigranteak sustatzeko.

Nafarroako Aldizkari ofizialean berriki [argitaratu](#)tako oinarrien arabera, eskaerak apirilaren 20a bitarte entregatu daitezke Gizarte Politika eta Kontsumoko Zuzendaritza Nagusian, bai eta Nafarroako Gobernuko [gainerako erregistroetan](#) edo [30/1992 Legean](#) ezarritako tokietan.

Diruz lagundutako programak aurten burutu beharko dira, eta honako hauei lotuta izan beharko dute: immigranteak diren pertsonak udal-bizimoduan sartzeari eta parte hartzeari; kolektibo hori prestatzeari beren trebetasun eta gaitasun pertsonalak hobetzeko; jokabide diskriminatzaile, arrazista eta xenofoboak prebenitzeari; eta egoera kalteberan dauden emakume immigranteen jabeakuntzari.

Toki-erakunde bakoitzak programa bakarra aurkeztu ahalko du eta, horretarako, gehienez ere 15.000 euro eskatu ahal izango du. Izendatutako langile-gastuak diruz lagunduko dira jarduerak horiek egiteko, programari zuzenean lotutako fakturak, eta zerbitzu tekniko eta profesionalak kontratatzea.